

Literatura Unibertsala bildumak 100 titulu

Shakespeare-ren Hamlet, euskaraz

100. titulua iritsi du Eusko Jaurlaritzaren, Ibaizabal argitaletxearen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen *Literatura Unibertsala* bildumak, William Shakespeare-ren *Hamlet*-en itzulpenarekin.



urteko bidean, gero eta zailduago itzultzaileak eta gero eta landuago euskara, itzulpengintzatik etorri baita euskararen iraultzetarik bat.

100. titulua, Shakespeare-ren Hamlet


Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko jai-egitarauaren barruan aurkeztu zen Juan Garziak euskaratu berri duen lana. Eguna bera ez zen arrazoirik gabe aukeratu, *Hamlet*-en lehen itzulpena 1951ko abenduaren 3an eman baitzuen amaitutzat Bingen Ametzagak Montevideon. Liburua, dena den, handik urtebetera, 1952ko azaroaren 25ean argitaratu zuen Buenos Airesean *Ekin* argitaletxeak. 50 urte dira, beraz, *Hamlet*-en lehen itzulpenak argia ikusi zuela.

Shakespeare-ren lan gehiago itzuli zituzten gero. Bedita Larrakotxeak *Macbeth* plazaratu zuen 1957an

Euzko Gogoa-n. Ondoko urtean, *Lear Errege* kaleratu zuen aldizkari berean eta *Ekatxa*, berriz, 1959an, *Euzko Gogoa*-n, beti ere. Harrezkero, Shakespeare-ren antzerki-lan guztiak euskaratzeari lotu zitzaion Larrakotxea. Kardaberaz Bazkunak argitaratu zuen haren lana 1974 eta 1976an, bost liburu marduletan.

Bidea eten egin zen, ordea, eta ez zen Shakespeare-ren itzulpen gehiago izan harik eta 1985ean Xabier Mendiguren Bereziartuk ildoari berrekin eta bost antzerki-lan *Antzerti* aldizkarian argitaratu arte. Shakespeare-ren antzerki-lanak ez ezik, egile ingelesaren poemak ere itzuli dituzte gure idazleek. Gabriel Arestik, Santi Onaindiak, Juan San Martinek, Jon Beiztegi... zenbait soneto eta poema itzuli zituzten. Lanik beteena, ordea, oraintsu *Hamlet* itzuli duen itzultzaile berak du egina –Juan Garziak, alegia–, soneto sorta aukeratu eta itzuli baitzuen 1995ean, *Soneto hautatuak* izenburupean.

Hamahiru urte igaro dira lehen tituluak, Jonathan Swift-en *Gulliverren bidaiak*, argia ikusi zuenetik. Harrezkero, ehun autoreren lanak itzuli dira euskarara. Egun, egile unibertsalak euskaraz irakurri ezinik ez dugu: Anton Txekhov, Mark Twain, Rudyard Kipling, Joseph Conrad, R.L. Stevenson, Truman Capote, Leon Tolstoi, James Joyce, Italo Calvino, Saramago... Bildumako tituluetan, berriz, lan unibertsalak: *Hotsa eta ardaila*, *Koronelari ez dio inork idazten*, *Izurria*, *Madame Bovary*, *Jokalaria*, *Garai latzak*, *Maitalea*, *Harreman arriskitsuak*, *Giza faktorea*, *Manhattan Transfer*... Hamahiru



Literatura Unibertsala bildumak 100 titulu



PERTSONAJEA:
Miren Agur Meabe,
Euskadi literatura saria

LABURRAK
Euskara Ipar Euskal Herrian

Imanol Urbietari omenaldia

Euskalgintzaren historiari buruzko azterketa



Hemen dator Korrika 13

"XXI. Mendeko Idazle Berriak" erakusketa ibiltaria



Gernika-Lumoko EBPn, eskualde osorako plan estrategikoa

Euskaraz ikusi eta gozatzeko filmak

laburrak

Euskara Ipar Euskal Herrian

Zaldi Ero




Frantziako Estatistika eta Ekonomi Azterketarako Institutuak (INSEE) 1999an eginiko euskarari buruzko galderen emaitzak jakinarazi ditu oraindik orain Hizkuntza Kontseiluak.

Datuen arabera, Ipar Euskal Herriko biztanleen %29k menderatzen du euskara, eta frantsesa baino ez dakitenak %55 dira. Erra-
mun Baxok Hizkuntza Kontseiluko lehendakariaren arabera, familia transmisioari dagokionez euskararen gainbehera gelditu egin da.

Imanol Urbietari omenaldia

"Txoria nintzela", "Mac Mikel", "Txiki, txiki, txikia...", hamaika kanta ezagun ondu ditu bere bizian zehar Imanol Urbietara zarauztarrak eta omenaldia jaso zuen abenduaren 13an Donostiako Kursaal jauregian. "Lagunak zuri kantari" deituriko ekitaldian Imanolek berak sorturiko kanta ezagunak abestu zituzten hainbat lagunek eta ikusleek. Omenaldiaren karietara, Imanol Urbietaren biografia idatzirik eman du argitarara Andoni Egañak Ibaizabal argitaletxean, *Luzea da bidea* izenburupean.



Euskalgintzaren historiaz

Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren azken berrogeita hamar urteei buruzko azterketa egin du Michel Oronozek Elkar argitaletxearen *Le mouvement culturel basque 1951-2001* liburuan. Egileak gaur egungo Iparraldeko euskalgintzak dituen tresnak eskuratzeko urratsak eta oztopoak jaso ditu bere liburuan, "ez ahanzteko nondik heldu garen", zorrotz adierazi duenez.



pertsonajea

Miren Agur Meabe, Euskadi literatura saria

Zaldi Ero



Miren Agur Meaberen *Itsaslabarreko etxea* narrazioak irabazi du aurtengo Euskadi Literatura saria, haur eta gazteentzako modalitatean. Idazle ezaguna zen orain baino lehen ere Meabe, poesian eginiko bideagatik, batik bat.

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen 1962an. Magisteritza ikasketak burutu zituen aurrena eta Euskal Filologian lizentziatu gero. Irakaskuntzan lan egiten hasi zen Bilboko Kirikiño Ikastolan, baina

azken urteotan argitalpen-zuzendaritzaz eta kudeaketaz arduratzen da Giltza-Edebe argitaletxean, testuliburuaren koordinazio eta orrazketan.

Idazle ere zaïdu da, eta hainbat genero landu ditu: ipuina, poesia, iritzi-artikuluak, itzulpena... Dena dela, poesian zituen emanak, orain arte, bere alerik mardul eta beteenak. Argitaratu dituen lanen artean dira, besteak beste: *Uneka... gaba* (Labayru, 1996), *Oi, hondarrezko emakaitz!* (Labayru, 1999), *Azalaren kodea* (Susa, 2000), *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001), *Bisita* (Gara, 2001), *Joanes eta Bioletaren bihotza* (Elkarlanean, 2002), *El código de la piel* (Bassarai, 2002)...

Itsaslabarreko etxea

Saria jaso duen *Itsaslabarreko etxea* lana ez da baitezpadakoa, gazteentzako genero-nobela baita. Giro misteriotsuak inguratzen du nobela, izuak eta ezusteko bukaerak. Bestalde, gazteek bizi dituzten lehen amodioa, bizitza eta heriotzaren arteko estraineiko kezka, lagunarteko harremanak eta beste zenbait hari ageri dira narrazio honetan.

Narrazioa izanagatik, poetak bere buruari uko egin gabe jardun du, egilearen prosa aski poetikoan nabari denez. Balio handia du hori ere Miren Agur Meaberen *Itsaslabarreko etxea*-k, haur eta gazteentzako sailean aurtengo Euskadi Literatura saria jaso duen liburua.



Hemen dator Korrika

Apirilaren 4an abiatuko da kanpainaren 13. edizioa

"AEKekin herri bat geroa lantzen" dio Korrika 13ren leloak. Edizio berria Mauletik abiatuko da apirilaren 4an, eta Iruñean bukatuko da. Korrika

13ren helburu dira "gizarte berpizkunde berri baten atarian jarri, euskarak lurralde osoan lege babes iraunkorra lortu eta transmisioa ziurtatuko duen helduen euskalduntzea berrindartzea".

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, bestalde, "Korrika laguntzailea" kanpaina berezia abiarazi du, Korrika 13 antolatzen lagunduko duten metro sinbolikoak 10 euroren truke saltzeko asmotan. Euskaltzaindia da kanpainaren aurreko laguntzailea. Izan ere, AEKren lana txalotu du akademiak eta ekimenari babesa adierazi: "Euskarak batzen gaitu, euskara hizkuntza ofizial den aldetik erakundeen babesa du. AEK-k antolatu duen ekimen hau bezalakoak ere behar dira, erakunde ofizialak heltzen ez diren tokietara heltzeko".

"Korrika laguntzailea" Korrika 13ren aurrekanpaina izaki, Korrikaren ohiko kanpaina abian jartzearekin batera bukatuko da.

1980an Oñatitik Bilbora Euskal Herria zeharkatu zuen Korrika 1 antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzizkoenetakoa da Korrika.



"XXI. Mendeko Idazle Berriak" erakusketa ibiltaria

Egile berrien lan eta bizitzak plazara



Idazle gazteen bizitzaren eta lanen berri ematen duen "XXI. Mendeko Idazle Berriak" izeneko erakusketa ibiltaria antolatu du Euskal Idazleen Elkarteak. Izan ere, hogeita hamar idazle berri baino gehiago plazaratu da azken hamarkadan. Horietako batek, bestalde, Unai Elorriagak, 2002. urteko Espainiako Narratiba Saria jaso zuen joan den udazkenean, *SPrako tranbia* lana-rengatik.

"XXI. Mendeko Idazle Berriak" izeneko erakusketan, beraz, hogeita hamar egileri buruzko informazioa jaso dute, gazteen literatura lanak ardatz harturik beti ere. Lan horiez gainera, idazleen lekukotasunak, biografia laburra eta argitaraturiko liburu zerrenda ere ageri dira. Idazle berrien zerrendan dira, adibidez, Ixiar Rozas, Jasone Osoro, Harkaitz Cano, Kirmen Uribe, Unai Elorriaga, Jon Benito, Julen Gabiria, Urtzi Urrutikoetxea eta beste.

Erakusketak Deustuko Unibertsitatean ekin zion biderei eta Durangoko Azokako aretoan ere ikusgai izan zen. Ondoren, herriz herri abiatu da.

Gernika-Lumoko EBPN, eskualde osorako plan estrategikoa



A. Bayo

Gernika-Lumoko Udala eskualde osorako garrantzitsua izango den plan estrategikoa prestatzen dabil, batetik, eskualdeko biztanleriaren %34,77 bizi delako bertan, eta bestetik, eskualdea osatzen duten gainerako hermeretzi udalerriek zerbitzu asko eta asko Gernika-Lumon kokaturik dituztelako.

Plan estrategikoari ekin aurretik, berriz, euskararen egoera aztertu da esparruz esparru; hona azpimarratzeko moduko datu batzuk:

- Gernika-Lumoko 10 lagunetik 7 euskaldunak dira
- 1981etik 1996ra bitartean euskaldunen portzentajea %9,8 hazi da
- 19 urtetik beherako adin-tarteetan ia ez dago erdaldun elebakarrik
- Gernikako gehiengoak euskaldun zaharra da (%58,41)

- Euskaldun berrien portzentajea garrantzitsua da gazteen artean eta gora doa (%20 inguru)
- D eredua gora doa bertako ikastetxeetan
- Euskaldun zaharrak nagusi dira adin-tarte guztietan
- Lanbide Heziketan D eredua da bakarra

Badira, bestalde, zuzendu beharreko ahuleziak ere; adibidez, erdaldun elebakarren portzentajea behera joan arren, oraindik nahiko altua da (%18,4); familietan euskaldunen dentsitatea behera doan heinean euskaraz hitz egiten dutenen kopurua ere jaitsiz doa.

Aipaturiko diagnostikoa osatu bezain laster, Gernika-Lumorako moduko neurriak finkatu beharko dira. Hona Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurreikusi dituen batzuk:

- Euskararen familia bidezko jarraipena sustatzea
- Hizkuntza-normalkuntza programak zabaltzea ikastetxe guztietan
- Euskaltegitik kanpoko jarduera osagarriak antolatzea
- Euskararen erabilera sustatzea aisian, kirolean, erlijioan, komunikabideetan, kulturgintzan, teknologia berrietan, enpresetan eta udal barruko atal desberdinetan
- Euskara Zerbitzua sendotu eta Euskararen Aholku Batzordea osatzea.

Euskaraz ikusi eta gozatzeko filmak

Gabonetan aisialdirako denbora gehiago izaten dute haurrek eta gaztetxoek eta, besteak beste, zinemara joateko baliatzen dute. Gustuko filmak euskaraz ikusteko aukera urria ohi da urtean zehar baina ahalegin berezia egin da azken urteotan gabonetan. Horren harian, aurten ere bada ikusteko film ederrik Tinko elkarteak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz gauzatu duen proiektuaren bidez.

Besteak beste, *Gorputz Gudarostea*, *Chihiroren bidaiak* eta *Olentzero*, *Gabonetako ipuina* izan dira ikusgai eta haurren gozagarri euskal herrietan.



Beste zenbait film ere ikusgai izan dira gabonetan, euskaraz. Esaterako, *Adarbakar txiki*, *Baloia*, *Banpiro Txikia*, *Auzoko animaliak*, *Gezi urdina...* Helduek, bestalde, *Pianojolea* ikusteko aukera izan dute, Roman Polanskiren lan berri-berria.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
kodea:Lurraldea:
Tel.:
e-posta: